

IRAKASKUNTZA-GIDA

2021/22

Ikastegia

231 - Psikologia Fakultatea

Zikl.

Zehaztugabea

Plana

GPSICO20 - Psikologiako Gradua

Ikastaroa

2. maila

IRAKASGAIA

25063 - Psikologia Fisiologikoa

ECTS kredituak: 6

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

Psikologia Fisiologikoa, Psikologiako Gradu bigarren mailan irakasten den 6 ECTStako irakaskuntza zama duen ikasgaia da. Ikasgai honen bitartez, ikasleak bere psikologo prestakuntzan oinarritakoak diren ezagutza teoriko-praktikoak eskuratzen ditu. Ikasgai hau egiteko, beharrezkoa da ikasleak aurretik Psikobiologia alorreko beste ikasgaiak egin izana, Eboluzioa eta Jokabidea eta Jokabide Neurozientziaren Oinarriak bezalako ikasgaietan lantzen diren kontzeptuak Psikologia Fisiologikoan eskuratu nahi diren jokoaren oinarri biologikoak ulertzeko funtsezkoak baitira. Era berean, ikasgai honen bidez eskuratuko diren ezagutzak ezinbestekoak dira, gerora, hirugarren mailan, egingo den beste enborreko ikasgaia, Neuropsikologiaren eta Psikofarmakologiaren Oinarriak, ulertu ahal izateko. Jarraian aurkezten den programak, gosea, egarria eta joakbide sexuala bezalako jokabide motibatuak, bai eta loa eta erritmo biologikoak, ikaskuntza, oroimena eta emozioak duten oinarrian dauzkaten mekanismo neuralak ulertuz, jokabidearen oinarri biologikoen ezagutza espezifikoa ekarpena egin nahi dio psikologo-gaien prestakuntzari. Halaber, nahasketa psikologikoen oinarri biologikoei hurrerapen bat egiten du, bai eta estres erantzun fisiologikoari eta honek osasunean dauzkan eraginei ere. Azkenik, ikasgai honi ere dagokio pertsona arteko komunikazio eta lan-harreman gaitasunak bezalako zeharkako gaitasunen garapena lantzea.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

1. Testuen azterketa, sintesi, aurkezpen eta eztabaidaren bidez, Psikologia Fisiologikoaren ikuspegi teoriko nagusiak ezagutzea
2. Sistema fisiologikoen eta oinarritako prozesu psikologikoen, bai eta euren nahasmenduen arteko elkarrekintzak ezagutzea.
3. Jokabide normal eta patologikoaren oinarri biologikoein lotutako ekarpen zientifiko nagusiak deskribatzeko gai izatea.
4. Psikologia Fisiologikoaren ikerketa metodo eta teknika nagusiak ezagutu eta euren ahalbide praktikoak ezagutzea.
5. Ikasgai jorratutako edukiei buruzko ahozko txostenak bai eta txosten idatziak lantzeko gai izatea.
6. Psikologiarekin zerikusia duen informazioa bilatzeko, kudeatzeko, eguneratzeko, hautatzeko, aztertze eta laburtzeko gai izatea, espezializatutako informazio- eta dokumentazio-iturrietatik abiatuta
7. Maila pertsonalean, profesionalean eta zientifikoan modu eraginkorrean erlazionatzea eta komunikatzea, eta banaka nahiz diziplina bakarreko zein anitzeko taldeetan lan egiteko gai izatea, ardurak hartuz eta jarduerak modu kritikoan baloratuz.

CONTENIDOS TEÓRICO-PRÁCTICOS

1. Psikologia Fisiologikoa. Ikerketa metodo eta teknikak.
2. Gosea eta egarria. Elikagaien ahoratzearen erregulazioa. Gosea eta asetasunaren oinarri neurobiologikoak. Ahoratzearen nahasmenduak. Fluidoaren orekaren erregulazioa. Egurri osmotikoa eta egurri bolemikoa: mekanismo neuralak.
3. Sexu eta ugalketa jokabidea. Sexu eta ugalketa jokabidearen kontrol hormonalak. Feromonen zeregina. Sexu eta ugalketa jokabidearen kontrol neuralak. Gizakion jokabide sexuala.
4. Loa eta erritmo biologikoak. Loaren deskripzio fisiologikoa. Loaren funtzioak. Loaren esta iratzarraldiaren mekanismo neuralak. Loaren nahasmenduak. Erritmo biologikoak.
5. Ikaskuntza eta oroimena. Ikaskuntza eta oroimenaren izaera. Ikaskuntza pertzeptualaren, baldintzapen klasikoaren eta baldintzapen instrumentalaren oinarri neuralak. Plastizitate sinaptikoaren mekanismoak: epe luzerako indartzea. Errefortzuaren oinarri neuralak eta ikaskuntza. Ikaskuntza erlazionala.
6. Emozioa. Emozioen izaera. Garun emozionala: erantzun emozionalaren oinarri neuralak. Agresioa: mekanismo neural

eta hormonalak.

7. Nahasmendu psikologikoen psikobiologia. Herstura eta estres nahasmenduak. Eskizofrenia. Nahasmendu afektiboak.

Ikasgaiaren eduki praktikoak, metodologiari buruzko hurrengo atalean azaltzen dira.

METODOLOGIA

ATAL PRAKTIKOA

Ikasgaiaren edukiak, gelako praktika, ordenagailu praktika, tailer eta mintegien bidez landuko dira, artikulua irakurri, ordenagailu programa espezifikoak erabili eta bideoak ikusiaz.

2. ASTEA.

GA1. Metodo eta teknikak Psikologia Fisiologikoan. [2ord.]

Praktika honetan, ikasleek, testu bat irakurri ondoren, lan-talde txikitan irakurritakoari buruzko galdesorta bat erantzungo dute, esperimendu ezberdinetan erabiltzen diren teknikak identifikatu eta deskribatuaz. Egindako galderei buruzko eztabaida eta zuzenketa. Praktika hau azterketa teorikoan ebaluatuko da (4. Gaitasuna).

3. ASTEA

OP1. Ahoratze Jokabidea. [2ord.]

Gose eta asetasunaren mekanismo neuralei buruzko testu baten aurretiko irakurketa. Irakurritakoari buruzko zenbait galderen erantzutea. Zenbait eskema osatuko dira ordenagailu programa bat erabiliaz. Landutako eskemetaz baliatuz ahozko azalpenak egingo dira gose eta asetasunaren mekanismo neuralak azalduaz. Praktika hau azterketa teorikoan ebaluatuko da (2., eta 6. Gaitasunak).

4. ASTEA

GA2*. Orientazio sexualarekin lotutako oinarri biologikoak. [2 ord.]

5. ASTEA

GA3*. Loaren nahasmenduak . [2 ord.]

6. ASTEA

TA1*. Erritmo biologikoak. [2 ord.]

* Hiru praktika hauetan, behin bideo bat ikusita, ikasleek lan-taldetan galdesorta bat erantzungo dute, bideo bakoitzean ikusitakoaren inguruan. Gero gelan eztabaidatuko dira ikerketa ezberdinetan alderdi interesgarrienak nabarmenduz, emaitzak interpretatuaz, eta ondorio nagusiak lortuaz. Egindako galdesortaren zuzenketa. Azkenik GA2 eta TA1 praktiketara test baten bidezko ebaluaketa egingo da, eztabaidatutako kontzeptuen ulermena baloratuaz. GA3 praktika azterketa teorikoan ebaluatuko da (2., 3., eta 6. Gaitasunak).

7. ASTEA

OP2. Ikaskuntza eta plastizitate sinaptikoa. Epe luzerako indartzea. [2 ord.]

Praktika honetan, ikasleek, epe luzerako indartzeari buruzko testu bat irakurri ondoren, irakurritakoari buruzko galdesorta bat erantzungo dute, hots epe luzerako indartzearen mekanismo neurokimikoei eta hauen eta ikaskuntzaren arteko harremanari buruzkoa. Zenbait eskema osatuko dira ordenagailu programa bat erabiliaz. Landutako eskemetaz baliatuz ahozko azalpenak egingo dira epe luzerako indartzearen mekanismoak azalduaz. Praktika hau azterketa teorikoan ebaluatuko da (2., eta 6. Gaitasunak).

8. ASTEA

M1. Oroimena eta Alzheimer. [2 ord.]

Bideo bat ikusi ondoren, galdesorta bat erantzungo da ikusitakoaren inguruan. Gero gelan eztabaidatuko dira ikerketa ezberdinetan alderdi interesgarrienak nabarmenduz, emaitzak interpretatuaz, eta ondorio nagusiak lortuaz. Egindako galdesortaren zuzenketa. Azkenik test baten bidezko ebaluaketa egingo da, eztabaidatutako kontzeptuen ulermena baloratuaz (2., 3., eta 6. Gaitasunak).

9. ASTEA

OP3. Jokaeraren Oinarri Biologikoak. [2 ord.]

Ikasleak 5-6ko taldetan banatuta talde-lan bat egingo dute jokaeraren oinarri biologikoei buruz gerora klasean aurkezpen bat egin ahal izateko (lauhilekoaren azkeneko bi asteetan). Praktika honetan eurek aukeratutako jokaeraren oinarri biologiko zehatzei, hau da oinarri neuroanatomiko, neurokimiko, neuroendokrinoei buruzko fenomeno baten inguruko artikuloak bilatuko dituzte datu baseetan. Lortutako informazioarekin eta aurkezpen software bat erabiliaz (PowerPoin, Prezi, LibreOffice Impress..) ahozko aurkezpen bat antolatuko dute (2, 3, 5, 6 eta 7 Gaitasunak).

10. ASTEA*

TA2. Emozioen oinarri biologikoak. Enpatia eta jokaera agresiboa. [2 ord.]

11. ASTEA*

TA3. Psikoneuroinmunologia [2 ord.]

12. ASTEA*

TA4. Nahasmendu Psikologikoen Psikobiologia. [2 ord.]

TA2, TA3 eta TA4 tailerretan bideo bat ikusiko da eta testuak irakurriko dira. Gero gelan eztabaidatuko dira alderdi interesgarrienak nabarmenduz, emaitzak interpretatuaz, eta ondorio nagusiak lortuaz, galdesorta bat erantzunez. Egindako galdesortaren zuzenketa. Azkenik test baten bidezko ebaluaketa egingo da, eztabaidatutako kontzeptuen ulermena baloratuaz (2., 3., eta 6. Gaitasunak).

13. ASTEA

TA5. Jokaeraren Oinarri Biologikoak. [2 ord.]

OP3an hasitako lanaren jarraipenari ekingo zaio. Oraingoan aurkezpenaren eskema landuko da galdera ireki batzuk banaka erantzunez. Landutako erantzunak entregatu egingo dira praktikaren amaieran (2, 3, 5, 6 eta 7 Gaitasunak).

14. ASTEA

TA6. Jokaeraren Oinarri Biologikoak. [2 ord.]

Talde bakoitzeko kide guztiek, bakoitzari dagokion ahozko aurkezpenaren zatia banaka egingo dute. Aurkezpena OP3 eta TA5ean landutakoa izango da. (2, 3, 5, 6 eta 7 Gaitasunak).

15. ASTEA

GA4. Jokaeraren Oinarri Biologikoak. [2 ord.]

Talde bakoitzeko kide guztiek, bakoitzari dagokion ahozko aurkezpenaren zatia banaka egingo dute. Aurkezpena OP3 eta TA5ean landutakoa izango da. (2, 3, 5, 6 eta 7 Gaitasunak).

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	32	2	8		6		12		
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	48	3	12		9		18		

Legenda: M: Magistrala S: Mintegia GA: Gelako p.
 GL: Laborategiko p. GO: Ordenagailuko p. GCL: P. klinikoak
 TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Test motatako proba % 80
- Praktiak (ariketak, kasuak edo buruketak) % 12
- Lanen, irakurketen... aurkezpena % 8

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Eduki teorikoen eskurapenaren lorpena test moduko azterketa baten bidez ebaluatuko da. Azterketak honek 8 puntu

balio izango ditu, 10ekiko, hots ikasgaiaren kalifikazio orokorraren %80a. Egindako praktikak ere ebaluatuko dira, 10ekiko 2 puntutako balioa izanik, hots ikasgaiaren kalifikazio orokorraren %20a.

Irakasgaia gainditzeko gutxienez azterketa teorikoa gainditu behar da (4, 8 puntutik) eta 5 atera praktiketako nota gehituta. Azterketa teorikoa gainditzen ez bada nota praktikoa ez da gehituko.

Eduki teorikoei buruzko azken azterketa: Eskola magistraletan landutako gaiei buruzko test moduko galderez osatutako azterketa bat izango da. Bertan "La Biopsicología en tanto que Neurociencia" testuko edukiei buruzko, bai eta praktiketan landu baina ebaluatu ez diren eduki teorikoei buruzko galderak egingo dira ere. Azterketa honek 8 puntutako balioa izango du 10 ekiko.

Irakasgaiko praktikei dagokion kalifikazioa, lauhilekoan zehar egingo diren lanen bitartez lortu ahal izango da. Klaseetan, irakurritako artikuluen eta ikusitako bideoei buruz erantzundako test moduko galdesorten bidez puntu 1 lortu ahal izango dira eta taldean egindako eta banaka ahoz aurkeztutako lanaren bidez, beste puntu 1. Ahozko aurkezpenean, aurkezpen bera, ideia nagusiak jasotzen ote diren, ondo sintetizatu diren eta ondo argumentatu diren ebaluatuko da. Oro har, 2 puntu lortu ahal izango dira zati praktikotan, 10 ekiko.

Praktika saioetako lanak egiten ez dituzten ikasleek, azken azterketarekin batera praktiketan landutako irakurketei buruzko azterketa bat egingo dute. Irakurketa materiala ikasturtearen hasieran emango zaie.

DEIALDIARI UKO EGITEA

Ikasgai honetan nahikoa izango da azken azterketara ez aurkeztea, deialdiari uko egiteko.

IKASGAIA BIRTUALKI EBALUATZEKO PLANA

Covid-19ak eragindako pandemiaren salbuespenezko egoera bati berriro aurre egin behar izanez gero, irakaskuntza gidan eta web orrialde ofizialean agertzen diren gidaren irizpideak alda daitezke. Irakasle taldeak hurrengo irizpidea erabiliko luke: "Psikologia Fisiologikoa ikasgaiaren ebaluazio planak aurrez aurreko ebaluazioaren isla izaten saiatuko da, eGela irakaskuntza plataforma birtualean eskuragarri dauden jardueren bidez".

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

BIBLIOGRAFÍA

Oinarrizko bibliografia

IKASGAIAREN JARRAIPENA EGITEKO ESKULIBURU NAGUSIA HONAKOA DA

Carlson NR.(2018) Fisiología de la Conducta. Pearson, (12. argitaralpena). -2014ko 11. argitaralpena ere erabil liteke-.

BESTE ESKULIBURU BATZUK

Arin Lakidain RM eta Díaz Ereño E. Fisiología Medikoa II ikasteko gida. UPV-EHU Arg. Zerbitzua. 2014.

Collado Guirao (Koord.) Psicología Fisiológica. UNED, 2017.

Gomez Amor J Neurociencia de la conducta. 2012. ISBN: 9788415429074.

Pinel JPJ. Biopsicología. Pearson, 2007.

Redolar, D. Fundamentos de Psicobiología. 2014. ISBN: 9788490642238.

Gehiago sakontzeko bibliografia

Bernardo Arroyo M (2016)Nuevos planteamientos clínicos en esquizofrenia.Biomarcadores.Ediveramerica

Bulbena A (2016) Ansiedad. Neuroconectividad: la revolución. ISBN: 9788491172079.

Damasio AR (2008) El error de descartes. Editorial Crítica.

Damasio A (2006). En busca de Spinoza, Neurobiología de la emoción y los sentimientos. Barcelona: Drakontos.

Farré, J.M., Gómez, R., Salvador-Carulla, L. (2015) La aventura del cerebro. Editorial Singlatana.

Gazzaniga MS (2014) ¿Quién manda aquí? El libre albedrío y la ciencia del cerebro.

Jarrett, C (2015) Grandes mitos del cerebro. Editorial Buridan.

Juarez Gonzalez J (2007) Neurobiología del hedonismo. Mexico: Manual Moderno.

López Alonso, D (2014) Biología de la homosexualidad. Madrid: Síntesis.

Martinez Sanchis S (2007) Hormonas, estado de ánimo y función cognitiva. Madrid: Delta.

Morgado I (Cor.) (2005) Psicobiología: De los genes a la cognición y el comportamiento.
Barcelona: Ariel Neurociencia

Morgado, I.: "aprender, recordar y olvidar". Ariel. Barcelona 2014.

Moya Albiol, L. (2010) Psicobiología de la violencia. Piramide.

Perna G (2005) Las emociones de la mente: Biología del cerebro emotivo. Madrid: Tutor.

Porges, S.W. (2016) La teoría polivagal. Fundamentos neurofisiológicos de las emociones, el apego, la comunicación y la autoregulación. Madrid: Pleyades.

Redolar, D (2017) Placer, toma de decisiones y cerebro. Barcelona: UOC.

Rizzolatti G, Sinigaglia C (2006) Las neuronas espejo. Los mecanismos de la empatía emocional. Barcelona: Paidós

Sapolsky RM (2008) ¿Por qué las cebras no tienen úlceras? Madrid: Alianza.

Sapolsky RM (2007) El mono enamorado y otros ensayos sobre nuestra vida animal. Barcelona: Paidós Ibérica.

Swaab, D (2014) Somos nuestro cerebro. Barcelona: Plataforma Editorial.

Aldizkariak

Elhuyar. Elhuyar Fundazioa. Usurbil

Investigación y Ciencia. Prensa Científica. Barcelona

Mente y Cerebro. Prensa Científica. Barcelona

Interneteko helbide interesgarriak

www.eitb.eus/es/television/programas/teknopolis/

www.redesparalaciencia.com

www.rtve.es/television/redes/

www.rtve.es/noticias/documentos-tv/

www.rtve.es/television/documentales/la-noche-tematica

OHARRAK

e-Gela:

Ikasgela birtualaren bidez eskola magistraletan erabiltzen diren aurkezpenen PDF artxihoak lortu ahal izango dira, bai eta ikasgaiari buruzko informazio baliagarria. Ikasle eta irakasleen arteko kontakturako ere ikasgela birtualaren erabilpena aholkatzenda.

TUTORETZAK

Irakasleen tutoretza ordutegiak GAUR eta e-Gela baliabideen bidez ezagutu ahal izango dira.